

# Garesti atera diren maskarak

Esparzak (UPN) kontuak eskatu dizkio Nafarroako Gobernuari, Sodenako buruaren kargugabetzea dela eta: «Icebergaren tontorra da» • Txibitek, berriz, gobernuaren «gardentasuna» nabarmendu du

## Ion Orzaiz

Pilar Irigoien Sodena sozietate publikoko zuzendariaren kargugabetzeak hautsak harrotu ditu Nafarroan. Auziaren erdian, hiru gako nagusi: pandemiaren hasieran CEN Nafarroako Enpresariaren Elkargoarekin sinatutako hitzarmen bat, milioi bat euroren galarak eta diru publikoekin ordaindutako 1,7 milioi maskara, biltegi batean gordeta.

Osagai horiek guztiak baliatuta, UPNko presidente Javier Esparzak gogor jo du gobernuaren kontra. «Kontrolrik eza, arduragabekeria eta ondare publikoari eginko kaltea» nabarmendu ditu. Izan ere, Navarra Suma osatzen duten alderdien arteko harremanak okerrean diren garaian, Esparzak ongi probestu du arreta mediatikoa gainetik kendu eta Maria Txibiteren gobernu es-tualdian jartzeko aukera.

UPNko buruaren esanetan, Nafarroako Gobernuaren ikuskaritza atzemandako irregulartasunak «izozmendiaren tontorra» dira. Are: Pilar Irigoien kargugabetzea aski ez, eta jopuntua gorago jarri du Esparzak, erantzukizun politikoa Ogasun kontseilari Elma Saizena dela iritzita: «Erantzukizun osoa gobernuarena da, baina Sodenako zuzendaria kargugabetu dute. Ziurtenik, pertsona horrek ez zituen gauzak behar bezala eginen, baina susmoa dut pagaburu gisa erabili dutela, Elma Saizen oniritziarekin egin baitzen dena».

Nafarroako Gobernuo eta Sodenako arduradunek, berriz, prozesu osoaren «gardentasuna» nabarmendu dute. «Gobernu ikuskatzeko eta fiskalizatzeko barne prozedurek behar bezala funtzionatu dute», esan du Maria Txibite lehendakariak: «Gobernuak berak atera du auzi haur argitara, erabateko gardentasunez, eta Kontuen Ganberaren esku jarri du txostena, administrazioa kontrolatzeko funtzioa bete dezan». Txibitek azaldu du gobernuak «beharrezko azalpen guztiak» emanen dituela Nafarroako Legebiltzarrean. Erabili gabe geratu diren 1,7 milioi maskarek dagokienez, berriz, lehendakariak esan du gobernu lane-



Elma Saiz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, eta Mikel Irujo, Garapen Ekonomikoko kontseilaria, artxiboko irudi batean. JESUS DIGES / EFE

an dela material horri «erabilera bat emateko».

Garapen Ekonomikoko kontseilari Mikel Irujok ere prozesu osoaren «gardentasuna» izan du



**Pilar Irigoien pagaburua izan da auzi honetan; Elma Saiz kontseilariak bazekien gertatzen ari zen guztia»**

**Javier Esparza**  
UPNko presidentea

**«Gobernuak berak atera du auzi haur argitara, eta txostena Kontuen Ganberaren esku utzi du, gardentasunez»**

**Maria Txibite**  
Nafarroako Gobernuo lehendakaria

**«2020ko apirilean, enpresen materiala behar zuten jardunera itzultzeko; horregatik hartu zen erabakia»**

**Mikel Irujo**  
Garapen Ekonomikoko kontseilaria

hizpide. «Nafarroako Gobernuaren ikuskatze txostenak ondorioztatu du Sodenak gobernuaren berarizko baimen bat behar zuela maskarak erosteko, eta ez zuela halakorik eskatu. «Egoera horren argitara, Sodenaren administrazio kontseiluak erabaki zuen Pilar Irigoien kargutik kentzea». Izan ere, Irigoienek sinatu zuen kontratua.

## Izurri garaiko erabakia

Irujok gogorarazi du maskara kirurgikoak inportatzeko operazioa «konfinamendu garaian» hartutako erabakia izan zela, eta «egoera kaotiko horren barruan» ulertu behar dela: «2020ko martxo-apiriletan ez genuen babes pertsonalerako materialik, eta apirilaren 7an, ikusita industriaren jardura pixkanaka berpizten haszitekeela, enpresen materiala eskatu zuten, langileen osasuna bermatzeko». Hori dela eta, Sodenak «bi milioi euroko mailegua» egin zion Albyn Medical enpresari, Txinatik maskarak ekar zitzan. Kopuru horretatik, 1,2 milioi galduak ditu jada sozietate publikoak.

## GAKOAK

### 1 Zergatik kaleratu dute Sodenako zuzendaria?

Sodena sozietate publikoak, CEN Nafarroako Enpresariaren Elkargoak eta Albyn Medical enpresak 2020an sinatutako kontratu batean «irregulartasunak» atzeman dituelako Nafarroako Gobernuaren Esku Hartze Orokorreko zerbitzuak. Txostena ezagutu eta berehela, Pilar Irigoien zuzendaria kargutik kentzea erabaki du Nafarroako Gobernuak, eta sozietatearen administrazio kontseiluak kargugabetzea berretsi du.

### 2 Zer zioen kontratuak?

2020ko maiatzean sinatutako kontratua izan zen, COVID-19ak eragindako itxialdiaren ostean, Nafarroako enpresei lanera bueltatzeko babes materiala bermatzeko xedez. Horren arabera, Sodenak bi milioi euro pagatu behar zizkion «Nafarroako enpresa bati» (Albyn Medical), maskara kirurgikoak Txinan erosi eta Nafarroara ekartzearen truke. Maskara horiek bertoko enpresei

saltzeko asmoa zuen Sodenak, CENen bitartez. Alta, Espainiako Gobernuak maskaren prezioa arautzearekin batera, enpresek ez zuten Sodenaren maskarak erosteko beharrik ikusi, eta gehienak saldu gabe geratu dira.

### 3 Zer gertatu da saldu ez ziren maskarekin?

Nafarroako Gobernuak Iruñerrian dituen bi biltegitan daude gordeta. Guztira, 1,7 milioi maskara dira.

### 4 Zer eragin du horrek?

Diru publikoa galtzea, batez ere. Bi milioi horietatik, 1,248 milioi euro galdu ditu Sodenak. Albyn enpresak %3,5eko komisioa jaso zuen bitartekari lana egiteagatik: 70.000 euro inguru.

### 5 Zer gertatuko da orain?

Kontuen Ganberak ikerketa bat abiatuko du, eta ebatziko du operazioa bidezkoa izan zen ala ez. Hortik harago, ez dirudi prozesuak soka luzea ekarriko duenik. Esparru politikoan, berriz, litekeena da oposizioak auzia erabiltzea gobernuaren higatzeko.